

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Molinaoko Santo Domingo de Guzman

Altza izena XI. mendean aitatu zen leheneko aldiz. San Martzial eliza. berri. XIV. mendean sortu zen Donostiako «Artiga» lurretan. Garai haietan komunitate txikia zen oraindik Altza.

XV. mendean Errosario-ko kofradia sortu zen Altza-ko San martzial elizan. bere aldare propioa zuelarik. Predikarien Ordeneko ziren Domingo Elizalde eta Bartolome Muñoz fraileek ezarri zioten Maria Santisimaren Errosarioari fedea altzatarren artean. Dirudienez, basieratik izugarritzko arrakasta izan zuen Altzan kofradia honek; pentsa herriko 91 baserri-etxetatik, ia 700 kofrade zituela 1703. urtean, Felix Elejalde eta Juan Erentxun historialariek esaten dutenez. Urte hartan, bikario eta kofradiako kape-

lana Altzako familia ezagun bateko semea zen: Migel Arzak.

Garai haiek joan ziren eta kofradia izkutatu zen. Egun Molinao etxearen aurreko fatxadan kajoitxo batean sartua agertzen zaigu Santo Domingo de Guzman. XIII. mendean bizi izan zena. Errosarioko fedearen zabalzailea eta Predikari Ordenaren fundatzailea izan zena.

JOSU TELLABIDE



«Santo Domingo de Guzman Predikari Ordenaren fundatzailea»  
(Argazkia: Roxali Fernandez)

## Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposalua



### Ezkonberriak

Ezkonberriak pozkidaz daude, pozkidaz daude, egin diralako gaur alkarren jabe elizan. Gauza ederragorik ezin izan. Ai, banengo ni orain zuen ditxan.

Joan Inazio Iztuetak (1767-1845) dantza eta kantu bilduman jaso zuen 1826.ean eta bere lurraz idatzitako bertso gehiago jarri ere bai. Gure aitona Isidro oraindik familiakoen ezkontzetan jo eta abestelko ohitura zuen. Beraz bide luzea egin du abesti honek. Donostian omen zuen abiapuntua, baina joandako mendean zehar Euskal Herri osora zabaldu zen eta musikologoek beste hainbat lekutan (Baztan, Durango,...) jaso zituzten bertaratutako bertsoak, hizkuntza aldaketa txikiak zituztelarik.

## ETXEBERRI JATETXEA



Lezotik Gaintxurizketa aldera, Jaizkibelen pean, **Etxeberria jatetxea**. Joxe Mari eta Romualdoren gobernupean. Ezkontza, komunio, famili edo lagunarteko bazkaria edo afarietarako leku aproposa. Ingurune zabal, berde atsegina. Aparkaleku propio eta haurrentzako jolas leku egokia.

**Joxe Mari** erosten ditu bertako haragia, arrai freskoa, inguruko barazkiak... **Romualdok**, 21 urte daramatza sukaldari.

Berezia? Dena, baina aipatzekotan «**legatz betea Romualdo erara**».